

# GIZARTE BONU TERMIKOA

Zure Gizarte Bonu Termikoa ulertzeko eta izapidetzeko



n a i d e r

# GIZARTE BONU TERMIKOA

## Zer da Gizarte Bonu Termikoa?

Gizarte Bonu Termikoa Gobernuak sustatutako laguntza bat da, herritar ahulenen **berokuntzarako eta ur bero sanitarioarako gastuak konpentsatzeko**, erabilitako energia-iturria edozein dela ere, Elektrizitateko Gizarte Bonuaren osagarri gisa jardunez.

Laguntza ekonomikoa da, eta zenbateko aldakorra du, kontsumitzailearen eta bizi den eremu klimatikoaren kalteberatasun-mailaren arabera.

# GIZARTE BONU TERMIKOA

Zein dira eskaera egiteko baldintzak?

1. Kontsumitzaile txikiaren borondatezko prezioa kontratatua izatea ohiko etxebizitzan.
  - PVPC Gobernuak ezarritako kontratu elektrikoa da, eta bertan **kontsumitutako elektrizitateagatik zuzenean ordaintzen dena merkatutik ateratzen den energiaren prezioa da, gehi zergak eta bidesariak**, beste produktu edo zerbitzu batzuk kontuan hartu gabe.
  - PVPC kontratatu ahal izateko, **10 kW edo gutxiagoko potentzia kontratatu behar da.**
  - PVPC **erreferentziako merkaturatzaileekin** kontratatzen da.
2. Elektrizitate gizarte bonoaren onuraduna izatea.

# GIZARTE BONU TERMIKOA

Zona klimatikoa	Zaugarritasun egoera	Laguntzaren zenbatekoa
Alfa	Kaltebera	25€
	Kaltebera larria edo baztertuta geratzeko arriskuan dagoena	40€
A	Kaltebera	29€
	Kaltebera larria edo baztertuta geratzeko arriskuan dagoena	46,40€
B	Kaltebera	37,68€
	Kaltebera larria edo baztertuta geratzeko arriskuan dagoena	60,29€
C	Kaltebera	49,84€
	Kaltebera larria edo baztertuta geratzeko arriskuan dagoena	79,74€
D	Kaltebera	67,56€
	Kaltebera larria edo baztertuta geratzeko arriskuan dagoena	108,10€
E	Kaltebera	77,46€
	Kaltebera larria edo baztertuta geratzeko arriskuan dagoena	123,94€

Zure zona klimatikoa kontsultatu dezakezu [Gizarte bonu termikoaren webgunean](#).

# GIZARTE BONU TERMIKOA

## Nola eskatu gizarte bonu termikoa?

Ez da beharrezkoa Gizarte Bonu Termikoa eskatzea, **automatikoki ematen zaie Elektrizitateko Gizarte Bonuaren onuradunei**. Gizarte Bonu Termikoa ere ez da berritu behar; automatikoki berritzen da Elektrizitateko Bono Soziala berritzen den bakoitzean, 2 urteko balioa duena.

## Nola eta noiz jasotzen da gizarte bonu termikoa?

Gizarte Bonu Termikoa banku-transferentzia bakar baten bidez kobratzen da, argiaren faktura helbideratuta dagoen banku-kontura urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Faktura elektrikoa helbideratuta ez baduzu, jakinarazpen bat bidaliko zaizu laguntza jasotzeko banku-kontua eskatzeko. Gizarte Bonu Termikoaren ordainketa jaso ahal izateko, Gizarte Bonu Elektrikoaren onuradun izan behar da aurreko urteko abenduaren 31n.

*Aprobetxatu kontsumitzaile ahulei eskainitako laguntzak eta aurreztu faktura energetikoak.*

*Zalantzarik baduzu edo aholkua modu pertsonalizatuan ematea nahi baduzu, jar zaitetz harremanetan Oarsoaldeko Energiaren Bulegoarekin*

[energia@oarsoaldea.eus](mailto:energia@oarsoaldea.eus) | 943.494.129

*Zure esanetara gaude!*



n a i d e r